

ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

JOSE ANTONIO EGIA UDAL KONTSERBATORIOA

AURKIBIDEA

I.- ZENTROAREN ORGANOAK

- 1.- ZUZENDARITZA ORGANOAK
- 2.- PARTE-HARTZE ETA LANKIDETZA ORGANOAK
- 3.- PEDAGOGÍA KOORDINAZINORAKO ORGANOAK

II.- IKASTETXEAREN KUDEATZE BIDEAK

- 1.- ANTOLAKUNTZA AKADEMIKORAKO TRESNAK.
- 2.- IRAKASKUNTZARAKO TRESNAK
- 3.- AGIRI AKADEMIKOAK

III.- ESKOLA JARDUERAKO ARAUAK

IRAKASLEEI BURUZKO ARAUAK
IKASLEEI BURUZKO ARAUAK
GELAK ETA EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK
EBALUAZINORAKO ETA SUSTAPENERAKO ARAUAK
IKASLEEN JARDUN BEREZIEI BURUZKO ARAUAK
ALKAR-BIZITZE ARAUAK
SEGURTASUN, HIGIENE ETA OSASUN ARAUAK

IV.- ARAUDIA ALDATZEKO JARDUNBIDEA

I-ZENTROAREN ORGANOAK

1.- ZUZENDARITZA ORGANOAK.

2.- PARTE-HARTZE ETA LANKIDETZA ORGANOAK.

3.- PEDAGOGIA KOORDINAZINORAKO ORGANOAK.

1.- ZUZENDARITZA ORGANOAK

1) Jose Antonio Egia Udal Kontserbatorioak zuzendaritza organo honeek eukiko dauz:

a.- Kide askotako organoak:

- Ordezkaritzarako organo nagusia Eskola Kontseilua izango da.
- Klaustroa.
- Zuzendaritza taldea.

b.- Pertsona bakarreko organoak:

- Zuzendaria.
- Ikasketa burua.
- Idazkaria

1.1. Eskola Kontseilua

2) 1.- Kide honeekaz osotuta egongo da Eskola Kontseilua:

a.- Zuzendaria.

b.- Ikasketa burua.

c.- Irakasleen 4 ordezkari.

d.- Gurasoen 3 ordezkari.

e.- Ikasleen ordezkari 2.

f.- Administrazinoako eta zerbitzuetako ordezkari bat (idazkaria botoagaz).

g.- Udalkide bato

2.- Eskola Kontseiluaren eginkizunak, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 31.2 artikulua ematen dituztenak izango dira:

a.- Kontserbatorioaren antolakuntza eta funtzionamendurako araudia onartzea.

b.- Urteko plangintza onartzea, 35.a.a) artikulua dionaren kalte barik.

c.- Prestakuntza eta eskolaz kanpoko ekintzak eta ekintza osagarrien programea onartzea, baita kudeaketarako urteko programea, balen jarraipena eta ebaluazioa eginaz aldizka.

d.- Zentroaren urteko memoria onartzea.

e.- Zuzendaria aukeratzea, eta borren proposamenez, zentroko beste pertsona bakarreko organo guztiak izendatzea. Zuzendariaren izendapenari balioa kentzeko proposamena egitea, edota izendapena etetea, heren bigaz, gehiengoak holan erabagi ezker.

f.- Ikasleak onartzeko erabagia hartzea, indarreko araudiak ezarritakoari zehatz lotuta.

g.- Gatazkak konpontzea eta ikasleei disziplina-zigorak ipintea, horreen eskubideak eta betebeharrak arautzen dabean arauak ezarritakoa betez.

h.- Kultura eta heziketa helburuakaz beste zentro batzukaz lankidetzan hartu-emonak izatea.

i.- Instalazioak eta eskolako ekipoak barriztea sustatzea eta euren kontserbazioa zaintzea.

j.- Zentroaren jardun orokorrak gainbegiratzea administrazino eta irakaskuntza ikuspegietan.

k.- Lege honek zein beste edozein arauk ematen dituzten beste eskumenak, zentroa antolatzeko eta haren funtzionamendurako.

3.- Eskola Kontseiluak, bere funtzinoak beteteko, laguntza honeek eskatu daitez:

a.- Interes bereziko gaietan, eskola-komunidadearen taldeetako parte-hartze organoeritxia eskatzea.

b.- Izakera egonkorrez zein noiz behinkakoz batzordeak eratzea.

c.- Laguntza zerbitzuei, Ikuskapenari, eta administrazioari, orokorrean, egokiak ikusten dauzan datuak, txostenak eta aholkularitzea eskatzea.

d.- Irakaskuntzan teknikoak diran pertsoneritza azterlanak burutu daitezala agintzea.

4.- Eskola Kontseilua, urtean hirutan batuko da gitxienez.

Ikasturte hasieran, urteko plangintzea eztabaidatuko da batzarrean, eta amaieran, urteko memoria aztertu eta onartuko da. Era berean, batzorde iraunkorrak erabagiten dauan bakoitzean edota Eskola Kontseiluko kideen herenak eskatzen dauanean batuko da. Hartutako erabagien aktea egingo dau idazkariak.

5.- Eskola Kontseilua deituko dau zuzendariak eguna, ardua eta gai zerrendea agerturik. Batzorde iraunkorrari jagoko zerrendako gaiak zehaztea, bai bere kideen zein irakasleek eskatuta. Zuzendaritza taldeari jagoko klausuroak eztabaidatu eta erabagiak hartzeko behar dauan itzformazioa emotea. Eguneko gai zerrendatik kanpoko gaiak be aztertu leitez, beti be, asti nahikorik egon ezker, baina ezin izango da eurretaz erabagirik hartu.

6.- Eskola Kontseiluko eta sortzen diran beste batzordeetako kideak ez dira egongo agindu inperatiboaren menpe ordezkari diran bitartean. Sektore bakoitzeko ordezkariak eureri jagoken kide askotako organoari emon beharko deute Organo Nagusiak egiten dauanaren barrio Alderantziz, organo horri azaldu beharko deute bere taldeak egin gura dauan proposamena, baina, ez dira egongo, derrigorrean, organo horren gehiengoaren eritxiaren menpe.

Pertsona zehatzakaz zerikusia daukien gaietan eta haren irudiari kalte egin leikionatan, isilpekotasuna gorde beharko dabe kide guztiek.

7.- Eskola Kontseiluak zein haren beste edozein batzordek aztertu beharreko agiriak Eskola Kontseiluko kide guztientzako egon behar dira ikusgai, aurretiaz, aztertu behar diran batzarra egin baino lehenago aztertuak izan daitez. Urteko plangintza eta memoriaren proposamena, Eskola Kontseiluaren kideek eskuetan izan beharko dabe onartzeko eguna baino hamar egun lehenago, gitxienez.

8.- Eskola Kontseiluko kide diran kolektiboetako ordezkariak, euren ordezkartzen daben kideen menpe egongo dira, honek horrela agintzen deuteenean, Eskola Kontseiluan zer aztertu dan azaltzeko, edo zer erabagi dan eta Eskola Kontseiluan aztertu beharreko proposamenak hartzeko. Kolektiboetako ordezkariak

klaustroaren batzar- informatiboak eta gurasoen batzarrak deituko dabez, beti be, garrantziko gaiak aztertzen diranean, eta, gitxienez, urteko plangintzea onartzeko, proposatzen diran helburuak eta proiektuak aurkezteko eta eurek ordezkatzan dabenen eritxia ezagutzeko. Eritxi honek, ez dau izango ezelan be behartzeko indarrrik, Eskola Kontseiluko ordezkariantzat.

3) 1.- Eskola Kontseiluak berak ezarten dauzan terminoetan, eginkizun eta lan zehatzak burutzeko batzordeak sortu daikez Eskola Kontseilu honek:

2.- Batzorde egonkor bat sortuko da: batzorde iraunkorra.

3.- Eskola Kontseiluak sortzen dauan batzorde egonkorra zein noiz behinkakoa, kide honeekaz osotuta egongo da:

a.- Zuzendaritza taldeko kide bat, burua izango dalla.

b.- Irakasle bi, Eskola Kontseiluan dagozan irakasleen artean aukeratuak.

c.- Guraso bi, Eskola Kontseiluan parte diranen artean aukeratuak.

d.- Ikasle bi, Eskola Kontseiluan ikasleak ordezkatzan dabenen artean aukeratuak.

e.- Udal ordezkaria.

Beste kide batzuk be gehitu leikez Eskola Kontseiluak batzordeetarako, irakasleen klaustroak eta gurasoen eta ikasleen alkarteek aukeratura, baina ,beti, sektore ezbardinen arteko proportzionaltasuna gordeta.

4.- Batzorde iraunkorraren zein noiz behinkakoaren lan plangintzea zehaztuko dau Eskola Kontseiluak. Bere jardunaren barrí emongo deutso batzordeak Eskola Kontseiluari.

4) Zuzendaria izango da batzordearen buru eta eginkizun honeek izango dauz:

a.- Kudeaketa proiektua egitea, prestakuntzarako jardunen programea egitea, baita jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoen programea be bai, urteko kudeaketa programea Eskola Kontseiluak onartzeko.

b.- Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaidatzeko.

c.- Eskola Kontseiluko batzarretako gai zerrendak eta gaiok aztertzeke behar dan dokumentazioa prestatzea.

d.- Premiazko kasuetan Eskola Kontseiluaren ordezkariak jardutea, hari emonez hartutako erabagien barrí.

e.- Zuzendaritza taldearen organo aholkularia izatea, haren eskumenekoa izan arren, gaia garrantzi handikoa bada, erabagia hartu aurretik eskola-komunidadearen eritxia jakitea gura danean.

f.- Eskola Batzordeak agintzen deitsozan eginkizunak eta lanak burutzea.

1.2. Irakasleen klaustroa

5) 1.- Irakasleen klaustroa, honeek zentroan daukien parte-hartze organoa da. Bertan lan egiten daben irakasle guztiek osotuta dago eta zentroko zuzendaria izango da burua.

2.- Euskal Eskola Publikoaren Legeak, 35.2 eta 35.3 artikuluetan emoten deitsozan eginkizunak izango dauz klaustroak:

a.- Zentroaren ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programea egin eta onartzea, Eskola Kontseiluak bere txostena emon eta gero zentroaren hezkuntza-proiektuan agertzen diran erizpideetaz.

b.- Irakaskuntzako jarduera programak beteten ez badira, horren barri emotea Eskola Kontseiluari, honek urteko memoria egin daian.

c.- Ikasleak ebaluatzeko eta berreskuratzeko lanari buruzko erizpideak finkatu eta koordinatzea.

d.- Ikasleen orientazino eta tutoretza lanak planifikatu eta zuzentzea.

e.- Zentroan garatu beharreko saiakuntza eta ikerkuntza pedagogikoaren arloan ekimenak sustatzea.

f.- Funtzionatzeko arauak onartzea.

g.- Irakasleen prestakuntzeari jagokonez, prestakuntza jardueren zein eskolaz kanpokoen edo osagarrien programen barri emotea, 36.3 artikulua ezarritakoa kontuan izanda eta Eskola Kontseiluak onartu aurretik.

35.3 Artikuluak ezarritakoaren arabera, irakasleen klaustroak bere ordezkariak aukeratuko dauz zentroko Eskola Kontseilurako.

3.- Zuzendariak deituko dau klaustroa, gai zerrendea zein dan azalduz. Zuzendaritza taldeari jagoko eguneko gai zerrendea zehaztea, bai bere ekimenez zein irakasleek eskatuta, eta klaustroak gaiak eztabaidatu eta erabagiak hartzeko beharrezkoa dan informazioa emotea. Eguneko gai zerrendatik kanpo be azertu leikez gaiak, beti be, horretarako astirik egon ezker, baina, ezin izango da hartu erabagirik euri buruz.

4.- Klaustroa, bere eskumen arloan, zuzendaritza taldeak aztertuko dauzan gaiak eztabaidatzeko erizpideak zehaztu leikez hasikera baten; erizpide horreek garatu eta zehazteko proposamena edo proposamenak egiteko arduratuko dan

pertsona edo pertsona taldea izendatuko dauz; azkenik, batzar erabagiorrean, aurkezten jakozan proposamenak kontuan izanda hartuko dauz erabagiak.

5.- Ikasturtea hasten danean, zentroaren antolakuntzea onartzeko eta irakaskuntza jardueren programea ontzat hartzeko batuko da; ikasturte amaieran, ikasturtea zelan loan dan azaltzeko txostena eta urteko memoria egiteko eta hurrengo ikasturtean irakaskuntza jardueren programa barruan sartuko diran proiektu didaktikoak zehazteko Jatuko da.

6.- Zentroaren ikasketa-proiektua praktikan ipinteko, ebaluatzeko zein aldatzeko koordinazioan eta zentroaren urteko planaren irakaskuntzako jardueren programea egiteko, klaustroak irakasleen proposamenak adituko dauz.

7.- Irakasleen klaustroa hilean behin batuko da, gitxienez. Era berean, zuzendariak zein zuzendaritza taldeak erabagiten dauan bakotxean edo irakasleen herenak eskatzen dauanean batuko da. Hartutako erabagien aktea jasoko dau idazkariak.

1.3. Zuzendaritza taldea

6) 1.- Zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osotuko dabe zuzendaritza taldea.

2.- Euskal Eskola Publikoaren 36.2 artikulua emoten deitsozan eginkizunak eukiko dauz zuzendaritza taldeak, eta, horrez gain, zentroaren irakaskuntza praktikan ikasketa-proiektua beteten dala zaintzea.

Honek dira zuzendaritza taldearen eginkizunak:

a.- Zentroaren zuzendaritzan eta koordinazio barruko erizpideak hartzeko laguntzea emongo deitso zuzendariari, baita, haren funtzionamenduan garrantzirik handiena daukien erabagietan be.

b.- Kudeaketa proiektua egitea, prestakuntza jardueren programea egitea, eskolaz kanpoko jardueren eta osagarrien programea egitea, eta baita urteko kudeaketa programea be bai, guzti horreek, ordezkari organo nagusiak onartzeko.

c.- Aurreko atalean aitaturako programak burutu, koordinatu eta gainbegiratzea eta beteten diran edo ez Eskola Kontseiluari jakinarazotea, honek urteko memoria onartu daian.

d.- Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaidatzeko.

e.- Euskal eskola publikoaren bese zentro batzukaz lankidetzat hartu-emonak izan daizan proposatzea Eskola Kontseiluari, baita organo horrek egoki ikusten badauz, hezkuntza administrazioari bialtzeko proposamenak egitea, beste erakunde batzukaz hitzarmenak egiteko, kultura edo heziketa helburuakaz.

f.- Irakasle taldeak antolatu eta ikasturtea basten danean, gaia arautzen daberen arauen araberrako jardueretara irakasleak atxikitzeo erizpideak erabagitea.

3.- Hiru arlotan bananduko da eskolako jarduereta:

a.- Langileen eta kanpoko barro-emanen arloa zuzendariari jagoko.

b.- Pedagogia eta hezkuntza-zerbitzuen arloa ikasketa buruari jagoko.

c.- Idazkariari jagoko arlo administratiboa, ekonomikoa eta eskola zerbitzuena.

4.- Bere kide bakotxari jagokozan eginkizunen arabera, kolegiatuta hartuko dauz erabagiak zuzendaritza taldeak. Horregaitik, zentroaren arazoak organo honetan eztabaidatuko dira eta kide bakotxak bere eskumeneko arloan burutuko dauzan erabagiak hartuko dira.

5.- Ohiz, astean behin batuko da, ohiz kanpo, zuzendariak erabagiten dauanean edota taldeko beste kide biek eskatuta.

6.- Eginkizun honeek daukaz zuzendaritza taldeak:

- Urteko plangintzearen programak eta urte amaierako memoria egitea koordinatzea.

- Urteko plangintzearen jarraipena egitea, batez be, irakaskuntzako jardueren programearena eta kudeaketarena.

- Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren batzarretako gai zerrendak prestatzea.

- Informazino bide egokiak ezartea eta zuzendaritza eta koordinakuntzako organoentzako beharrezko informazinoa izatea.

- Eskola Kontseilua eta klaustroa aldizka informatzea urteko plangintzaren programak beteten badira edota zelako aldakuntzak egin diran.

- Eskolaratzea hobetzeko, esperientziak eta baliabideak trukatzeko eta instituzino eta erakundeakaz koordinazino erak ezarteko, beste zentro publiko batzukaz hitzarmenak egiteko proposamenak egitea Eskola Kontseiluari, hartu-emon sistematikoak izan daizan.

7.- Zuzendaritza taldea, Hezkuntza salburutzearen araudia kontuan izanda aukeratuko da.

1.4. Zuzendaria

7) 1.- Euskal Eskola Publikoaren Legearen 34. artikulua zuzendariari emoten deitsozan eginkizunak honeek dira:

a.- Zentroaren ordezkari ofiziala izatea.

b.- Zentroaren funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea; ekitaldi akademikoaren eta zentroaren kide anitzeko organoen deialdia egin eta euren buru izatea.

c.- Zentroaren urteko kudeaketa programeagaz batera, gastua onartzea eta ordainketak agintzea.

d.- Legearen 63. artikuluari jarraituz obra, zerbitzu eta homiduretako kontratazioa egitea.

e.- Ziurtagiri eta agiri ofizialak gainbegiratzea.

f.- Jardutako arauak, xedapenak, proiektuak eta programak betearazotea, baita zentroaren jardunari jarraituz erabakiak ere bai.

g.- Zuzendaritzako karguak izendatzea ordezkari organo gorenerako. h.- Zuzendari atxikitako langile guztiaren buru izatea.

i.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko organoek deitsozan beste eskumen enparau guztiak; beste arau batzuek emoten deitsozanak eta antolakuntza araudian eta zentroaren funtzionamenduan agertzen direnak.

2.- Zuzendariak, bere eginkizunak beteten dautzan, Eskola Kontseiluak eta irakasle klustroak hartutako erabakiak eta planen arabera jardun behar dau, bere eskumeneko gaitan. Era berean, hezkuntza-komunitatea sustatu behar dau, irakasleak batez be, eta euren ekarpenak eta interesak hartu eta bideratu, komuniketako bideak eta alkarregekin lan egiteko erak bilatuz.

3.- Zuzendariaren eginkizunak honako honeek dira:

- Zuzendaritza taldeagaz batera, zentroa zelan doan eta zelako arazoak dagozan jakin eta jarraipena egitea. Bera izango da, zentroan gertatzen danaren erantzule nagusia.

- Eguneko gai zerrendea eta deialdia egin, eta, zuzendaritza taldeko, klustroko, eskola kontseiluko eta batzorde iraunkorreko buru izan.

- Urteko plangintza beteteari buruz zuzendaritza taldeak egiten dauan txostena jakinarazotea.

- Zentroaren izenean, hartu-emonak izatea administrazioagaz, ikasle gurasoen alkarregekin, instituzio eta gizarte, ondoizate, kultura eta abarreko erakundeakaz.

- Zentroaren antolakuntza onerako langileen beharrianak azaltzea administrazioari eta egokiak liratekeen ordezkarien egin daizala eskatu Delegaritzeari.

- Ikasleen faltan hileko parte bialdu Ikuskaritzeari, ezarritako epeen barruan.

- Irasleei, ikasleei eta euren familiei buruzko disziplina eta alkar-bizite arazoak konpontzea, araudi honek ezarten dauanaren arabera.

4.- Bere eginkizunak beteteko, zuzendariak 10 ordu eukiko dauz klaserik emon behar bakoak.

1.5. Ikasketa burua eta idazkaria

8) 1.- Ikasketa burua da ikasketa proiektua eta irakaskuntza jardueren programea beteteko dirala zuzenean arduratuko dala koordinetan eta zaintzen.

2.- Zentroaren zuzendaritza batzordeak onartutako erizpideak betez, ikasketa buruak egin behar dau:

a.- Izakera akademikodun jarduerak koordinatu.

b.- Ordu akademikoak egin eta beteten dirala zaintzea.

c.- Irakasle bakotxari unidade bat edo batzuk atxikitea, zuzendaritza taldeak ezarritako adskripzio eritxiak kontuan izanda.

3.- Eginkizun honek beteko dauz ikasketa buruak:

a.- Irakasleen bajek eta ausentziek sortutako hutsuneak beteteko bideak martxan ipiñi.

b.- Araudi honetan ezarritakoaren arabera, disziplina eta alkar-bizite arazoetan eskua hartu.

c.- Ebaluazio eta orientazio prozesuak koordinatu.

4.- Zuzendaritza talde barruan pedagogia arloko kide arduradun modura, ikasketa buruaren menpe egongo dira irakasle taldeak eta hezkuntza zerbitzuak. Aldizka, eta, eskatzen jakonean, organo honeen jardunaren barri emongo deitso zuzendaritza taldeari. Irakasle taldeetako arduradunen eta koordinatzaileengandik informazioa hartuko dau, egitaraua beteten bada ikusteko. Talde batzuk eta besteek hartzen dabezan erabagien eta lanaren barri be izan behar dau.

5.- Irakasle taldeek egiten daben zentroaren eta zikloen egoerari buruzko azterpenetik abiatuta, ikasketa buruak, zuzendaritza taldearen laguntzaz, urteko plangintzan sartu beharreko barrikuntzen edo formakuntzen proiektu berezien xede izango diran gaiak proposatuko dauz.

6.- Bere eginkizunak beteteko, ikasketa buruak, lau ordu izango dauz klaserik emon behar bakoak.

9) 1.- Idazkariaren eginkizunak honeek izango dira:

a.- Eskola Kontseiluaren, zuzendaritza taldearen eta klaustroaren batzarretako gai zerrendetan sartu behar diran gaiak prestatuko dauz, organo horreetako buruak ezarritakoa kontuan hartuta. Organo honeetako batzarretako aktea be jaso egin behar dau.

b.- Aktak, espedienteak, eta zentroaren beraren dokumentazioa jagon behar dauz eta organo ezbardinek erabili ahal izateko prest euki. Zentroaren materiale didaktikoak be jagon egin behar dauz.

c.- Zuzendariak ontzat emonda, zentroaren ekitaldi edo erabagi guztiak ziurtatuko dauz, baita, zentroaren beraren liburuak eta aurrekariak eta agiriak be bai.

d.- Kontratazioak egiteko behar dan guztia prestatuko dau, baita, materiala erosteko edo inbertsinoak egiteko be bai.

e.- Zentroaren dotazioen inbentarioa egingo dau.

f.- Instalazioak manteniten dirala gainbegiratuko dau.

g.- Zuzendaritza taldeak edo zuzendariak agindu edo delegetan deutsozan beste guztiak.

2.- PARTE-HARTZE ETA LANKIDETZA ORGANOAK

10) 1.- Parte-hartze organo honeek eukiko dauz Jose Antonio Egia udal kontserbatorioak:

a) Gurasoena:

- Gurasoen batzarra.

- Gurasoen batzarreko ordezkariak.

b) Ikasleena:

- Ikasleen batzarra.
- Ikasleen batzarreko ordezkariak.

2.- Lankidetzarako organoak dira:

- a.- Ikasleen gurasoen alkartea.
- b.- Ikasleen alkartea.
- c.- Zentroaren laguntzaile madura onartutako instituzinoak eta erakundeak.

2.1.- Gurasoen batzarra.

11) 1.- Batzarreko kide izango dira zentroko ikasle guztien gurasoak.

2.- 38.2 artikuluan Euskal Eskola Publikoak emoten deusozan eginkizunak eukiko dauz gurasoen batzarrak:

a.- Zentroko organo enparauei egoki ikusten dabezan proposamenak egitea, honeen eskumeneko gaiei buruzkoak diranean, irakaskuntzako jarduera programea burutzeari buruzko balorazioa be barman dala, eta eskolaz kanpoko programak, osagarriak eta urteko gestinoaren programea be bai.

b.- Zuzendaritza taldeagaz eta klaustroagaz hartu-emonak izatea zentroaren hezkuntza- proiektua garatzeko ahalik eta lankidetzarik handiena lortu ahal izateko.

c.- Gurasoen ekimena sustatzea, zentroaren bizitzan parte-hartze aktiboa izan daien.

d.- Kide askotako organoetan gurasoen ordezkari diranei, egindakoaren barri eskatzea.

e.- Funtzionatzeko arauak onartzea.

3.- Batzarrak mahai bat eukiko dau eta honela egongo da osotuta: kide bi, Eskola Konstseiluan gurasoen ordezkari diranak eta euren artean aukeratuak. Euren artean bat aukeratuko dabe mahaiko bozeroale madura.

Batzarreko mahaia, ikasturtearen lehenengo hilabetean eratuko da, ordezkariarik zaharrenaren ekimenez. Antxinatasun befa daukien ordezkari bat baino gehiago egon ezker, ordezkariarik adinekoenak izango dau ekimena.

4.- Batzarra informatua eta kontsultatua izango da, gai honeetaz:

a.- Zentroaren hezkuntza proiektua egiteaz edo aldatzeaz.

b.- Zentroaren urteko plangintzea.

c.- Alkar-bizite eta disziplina arauetan, eskubideetan eta betebeharretan, antolakuntza eta funtzionamendu araudia zehaztea.

d.- Hizkuntza eredia aldatzeko eskaria egitea.

e.- Zentroan barrizatze obra handiak burutzeko eskaria egitea.

f.- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak burutzeko ikasleei eskatu leikezan diru- kopururik handienak zehaztea.

g.- Batzarra urtean behin batuko da informazio izakeraz.

5.- Mahaiko bozeroaleak egingo dau batzarraren deialdia, mahaia erabagiten dauan gai zerrendeagaz. Batzarreko mahaia arduratuko da zuzendaritza batzordeari helarazten batzarrak erabagi dauana, edo azaldu gura dauzan eritxiak, edo batzarrak egoki ikusten dauzan jarduteak burutzen.

6.- Aktiboki hartuko dau parte batzarrak Eskola Kontseilurako gurasoen ordezkariak aukeratzen, eginkizun honeek eskuratuta:

a.- Hautagaiak aurkezteko batzar informatiboak deituko dauz mahaia.

b.- Sektoreko ordezkariak Batzar igirian aukeratuko dira.

c.- Botazinoetako emoitzak eta aukeratutako ordezkariak ziurtatuko dauz batzar- buruak.

2.3.- Ikasleen parte-hartzea.

12) 1.- Ikasleen batzarra eratuko da Jose Antonio Egia udal kontserbatorioan, eta, haren ordezkariak prozesu honetan aukertuko dira:

a.- Hautagaien zerrendak aurkeztuko dira.

Hautagaiek betebeharreko baldintzak:

- Zentroko ikaslea izatea eta 14 urtetik gora izatea.

b.- Hautagaien zerrendak egin eta gero, 14 urtetik gorako ikasleen artean botaketa bat egingo da, ikasleen batzarreko ordezkariak aukeratzeko. Ordezkari honeek Eskola Kontseiluko kideak be izango dira.

c.- Batzar informatiboetarako deia zabaldu eta ikasleen proposamenak hartu daikiez ikasleen ordezkariak.

2.- Zentroaren alkar-bizitea, eskola jarduerak, jarduera osagarriak zein eskolaz kanpokoak antolatzea, eta zentroaren martxa orokorra eztabaidatu eta gai honeei buruzko proposamenak egingo dabez ikasleen ordezkariak, ikasketa buruaren bidez, jagokon organora heldu daitezana.

3.- Ikasleen ordezkariak hiruhilabete behin batuko dira, edota ikasketa buruak deitzen deutesenean edota Eskola Kontseiluan ordezkari diran ikasleek eskatzen dabenean edota ikasleen % 40ak eskatu ezkeru.

3.- PEDAGOGIA KOORDINAZINOKO ORGANOAK

13) Jose Antonio Egia Udal Kontserbatorioan pedagogia koordinazinoko organo honeek jardungo dabe:

a.- Irakasleen klaustroa.

b.- Mintegi didaktikoak.

c.- Tutoretza partikularrak.

3.1. Tutoretza partikularrak

14) 1.-Irakasleriari jagoko:

a.- Zentroaren ikasketa-proiektuaren arabera, irakaskuntza egitaraua egin, garatu eta ebaluatzea.

b.- Ikastaldiaren eta aukera akademiko eta lanbidekoei buruzko orientazioa emoteko ikasleei, euren tutoretza hartzea.

c.- Atxikita dagozan ikasle-taldeetan parte hartzeko eta eskola-inguruan ekintza koordinatu eta egokia lortzeko.

d.- Zentroaren urteko plana egiten eta horren barruko proiektu espezifikoetan laguntzea, baita zentroaren ebaluazioan eta irakasleriaren irakaskuntza praktikan.

e.- Prestakuntza jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta zentroaren gobemu organoek ezarritako baldintzetan.

f.- Agintzen jakozan karguak eta eginkizunak betetea.

g.- Zentroaren antolakuntzan eta martxa onean laguntzea, ikasketa buruaren eta Araudian zehazten diran beste arduradun batzuren koordinaziopean.

h.- Aukeratua izan dan klaustroko edota gobemuko kide askotako organoetako batzarretara joatea.

i.- Hezkuntza Sailak izakera orokorragaz ezarten dauzan arauak betetea, edota zentro bakoitzean, gobemu-organoak ezarten dabeanako

j.- Asistentzia eta puntualidade hutsegiteak kontrolatzea eta guraso edo tutoreei horreen barri emotea, disziplina faltak be bai.

k.- Gurasoakaz edo tutoreakaz alkarrizketak izateko ordutegi bat jartea. Ezarritako ordutegi barruan ezin izango balebe joan, aurretiaz eskatu beharko dau gurasoak edo tutoreak alkarrizketea egiteko une egokia. Tutoreak gurasoa deitu leike ikaslea eskolan zelan doan azaltzeko.

3.2. Mintegi didaktikoak

15) 10- Irakasleek osotutako taldeak dira mintegi didaktikoak, eta, euren helburua, ikasgairen baten edo batzuen ikasketa garatzea, ikasketa-materialak eta ebaluabideak sortzea interes orokorreko gaiak eztabaidatzeko, adibidez: ezbardintasuna, tutoretzea, zehar-gaiak, ...

2.- Mintegi honeek staff izakerea daukie, eztabaidatze eginkizunakaz eta ez erabagiorrakazo Zuzendaritza taldeak baiezten dauzanean bakarrik izango dira irmoak proposamenak.

3.- Mintegietako eginkizunak:

a) Zentroaren ikasketa-proiektua garatu edota aldatzeko proposamenak egitea.

b) Arlo edo materia bateko programazinoa garatzea, ikasketa-proiektuak ezarritakoaren arabera, ziklo baterako edo batzuetarako, eta baliabide didaktikoak edota ebaluabide egokiak sortzea.

c) Irakaste-ikaste prozesuan sortzen diran arazoak aztertzea, eskola-inguruko orokorrak diranean, edota arlo zehatz batekoak diranean. Hobetzen ahalegintzea heziketa eta prestakuntzen barrikuntza prozesuen bidez.

4.- Ikasturtean funtzionatuko daberen mintegiak zehaztuko dira irakaskuntza-jardueretan, urteko plan barruan sartu diran proiektuak kontuan izanda. Lan-plangintzea be finkatu egingo da.

5.- Burutu beharreko proiektuan parte hartu behar daberen irakasleak atxikiko dira mintegiei, eta mintegi baten baino gehiagotan egon leikez. Mintegi bakotzak arduradun bat eukiko dau taldea koordinetako eginkizunakaz.

11 - ESKOLA ZENTRO BAT KUDEATZEKO TRESNAK

16) Tresna honeek erabiliko dira zentroa kudeatzeko:

1.- HEZKUNTZA ANTOLAKUNTZA ETA KOORDINAZINORAKO TRESNAK:

- Zentroaren hezkuntza proiektua.
- Ikasketa proiektua.
- Antolakuntza eta funtzionamendu araudia.
- Kudeatzeko proiektua.
- Urteko plangintzea.
- Urteko memoria.

2.- IRAKASTE JARDUNERAKO TRESNAK:

- Programazino didaktikoak.

3.- DOKUMENTAZINO AKADEMIKOA:

- Ebaluazinoan.

1.- HEZKUNTZA ANTOLAKUNTZA ETA ORDENAZINORAKO TRESNAK.

Epe erdirako egitasmoak

17) 1.- Hezkuntza proiektua bera izango da zentro guztirako, etapa baten baino gehiagotan emongo bada be. Eskola Kontseiluari jagoko onartzea.

2.- Zentroan emoten diran etapa bakoetarako egingo dira ikasketa-proiektuak, euren artean beharrezko koherentzia izango daben arren. Irakasleen klaustroari jagoko proiektu honeek egin eta onartzea.

3.- Udalak egingo dau kudeatze proiektua eta Eskola Kontseiluak onartuko dau.

4.- Proiektuak egin eta onartu dauzan organo berberak egin eta onartuko dau proiektu horreen aldaketak be.

5.- Organo arduradunean ordezkaturako kideen parte hartzerik handiena bermatu behar da proiektuen egite prozesu honeetan.

6.- Ikasketa Proiektua edo Antolakuntza araudiak aldatzea, urteko plangintza barruan planteatu behar dira, eta denbora baten praktikan jarri eta gero, jagokon organoak onartu beharko daz, agirianjasoteko.

7.- Proiektu honeek Hezkuntzako Lurralde-Ordezkaritzara eroango dira, indarrean dagoan legediaz bat datozela adierazo daian.

8.- Eskola komunitateak proiektu honeen barri izan daian, beharrezko tresnak jarriko daz zentroak. Eskola komunitateko edozein kidek eskatu leike euren kopia bato

9.- Pedagogia-koordinakuntzako batzordeak, jarduera didaktikoa zentroko proiektuakaz bat etortea zainduko dau, eta Ikasketa Proiektua aldatzeko iradokizunak aztertuko daz, irakasleen klaustroari proposamenak egin ahal izateko.

Urteko plangintzea

18) 1. Urteko plangintzan sartuko dira:

a) Irakaskuntza jarduerako programea.

b) Prestakuntzajardueren etajarduera osagarrien programea.

2.- Irakaskuntza jarduerako programea egitea, irakasleen klaustroari jagoko.

3.- Eskola Kontseiluari jagoko urteko plangintzea onartzea. Klaustroak onartuko dau irakaskuntza jardueren programea. Programa hori zentroaren hezkuntza-proiektuagaz bat datorren zehaztuko dau Eskola Kontseiluak.

4.- Ikasturtearen azken hiru hiletetakoan hasiko da programak egiteko prozesua, eta urriaren 31 a baino lehen amaituta egon beharko da. Urrats honek emon beharko dira:

a) Egoerea ebaluatuta, eta, organo eta talde guztien proposamenak adituta, programa bakotxaren organo arduradunak, ikasturterako planteatzen diran helburuak eta jardunak zehaztuko dauz.

b) Zuzendaritza taldeak, proiektuak zehaztea eta garatzea eskatuko deutse, hori burutu behar daben talde eta batzordeei.

c) Zuzendaritza taldeak prozesua jarraituko dau eta urteko plangintza barruan koherentzia bilatuko dau.

d) Programak egin eta gero, zuzendaritza taldeak plangintzea aurkeztuko deutso Eskola Kontseiluari onartu daian, honek.

5.- Gurasoen eta ikasleen ordezkariak euren parte-hartze organoei emongo deutesie urteko plangintzearen barri, onartua izan orduko.

6.- Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoari bialduko jako plangintzea. Aldatzeko proposamenak egin leikez honek, legezko arauen edo Hezkuntza Sailaren xedapenen aurka joan ezker, edota, plangintzea hobetzeko.

19) 1.- Irakaskuntza jardueren programa barruan sartuko dira:

a) Antolakuntzeari buruz, urterako hartzen diran erabagiak, Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiak ezarritakoaren arabera.

b) Zentroaren ikasketa proiektuan egiten diran aldakuntzak.

c) Ikasketa proiektua garatzeko proiektu espezifikoak.

d) Zentroaren ebaluazinoa egiteko erizpideak eta eria.

2.- Hezkuntza Sailak edo beste edozein erakundek egin leikezan deialdietarako zentroak egiten dauzan barrikuntza, prestakuntza edo beste proiektu, urteko plangintza barruan egongo dira.

3.- Hiruhilabetero, irakaskuntza jardueren programea beteten doan edo ez ebaluatuko dau irakasleen klaustroak, talde edo pertsona interesatuei eritxia eskatuta. Ebaluazino honen alderdirik garrantzitsuenen barri emongo deutso zuzendariak Eskola Kontseiluari. Ikasturtea amaitzen danean, programe aren balorazinoa egingo dau eta zelan bete dan be baloratuko dau klaustroak txosten baten. Irakaskuntza arloan zentroaren funtzionamendu orokorra be baloratuko da txosten horretan.

20) 1.- Alderdi honeekaz osotuko da prestakuntza jardueren eta jarduera osagarrien programea:

a) Zentroaren prestakuntza plangintzea eta eskola denborako formazino-jardueretan irakasleak parte hartzeko erizpidea.

b) Jarduera osagarriak, hall da, ikasturte, ziklo edo etapa bateko ikasle guztiek egin beharreko ez ohiko izakeradun jarduerak. Orokorrean, eskola-eraikinetik kanpo egiten diranak, ikasketa proiektua garatzeko.

2.- Zentroaren prestakuntza plan barruan sartuko dira zentroan bertan eta irakasle guztientzat zein talde batentzat egingo dira prestakuntza jarduerak be, irakaskuntzan ikusten diran beharizanei erantzun bat emoteko asmoz egiten diranean, zehaztuta antolakuntza eta ordutegietako aldakuntzak. Era berean, urteko plangintzearen jarduerak eta prestakuntzarako zona-plangintzea sartuko dira lan-ordutegi barruan, zentroko kideak parte hartzeko.

Prestakuntza jarduera honeetan parte hartzeko lehentasuna daukien erizpideak honeek izango dira:

- Zentroaren interesa, bere ikasketa-proiektua kontuan izanda.

- Zentroaren eta bereziki, euren ikasgelaren ohiko martxan eragin txarrik ez izatea.

3.- Jarduera osagarrien programetan, arduraduna nor dan, nori zuzenduta dagoan, helburua eta jardueraren programea, noiz eta non burutuko dan eta kostea agertu beharko dira.

4.- Hiruhilabetero, batzorde iraunkorrak/Eskola Kontseiluak, programa honen garapenaren jarraipena egingo dau eta borren barri emongo deutso Eskola Kontseiluari. Ikasturtea amaitzen danean, ebaluazino orokor bat egingo da eta bere ondoren eta proposamenak Eskola Kontseiluari egingo deutsoz eztabaidatu eta urteko memorian sartzeko.

Urteko memoria

21) 1.- Urteko memorian, gitxienez, gai honeek sartuko dira:

a) Ikasturtean, eskolaren bizitzan izan diran gorabeherarik garrantzitsuenak. b)

Ikasleen emoitza akademikoen balorazinoa.

c) Zentroaren funtzionamenduaren azterketa bat eta hobetzeko proposamenak.

d) Irakaskuntza jardueren programearen ebaluazinoa. Zentroaren ikasketa proiektuan sarro beharreko ondorenak eta hobetzeko proposamenak.

e) Prestakuntza jardueren programea eta programa osagarrien ebaluazinoa.

2.- Urteko memoriaren zirriborroa egingo dau zuzendaritza taldeak, klaustroak eta batzordeek, bakotxak bere eskumen-arloan, emondako informazioa kontuan izanda. Eskola Kontseiluak aztertu eta onartu egingo dau, horrela bajagoko.

3.- Parte-hartze eta lankidetzaren organoek, euren balorazioak helarazoko deusiez zuzendaritza taldeari, memorian sarro daizan, edo egindako proposamena aldatzeko euren iradokizunak.

2.- IRAKASKUNTZARAKO TRESNAK.

Didaktika egitarauak

22) 1.- Irakasle bakotxak autonomia eta erantzukizuna daukaz bere ikasleak zentroaren ikasketa proiektu barruan egingo dauzan eskola-jardueren egitaraua zehazteko. Autonomia hau errespetatuz, egokia da programa ezbardinak koordinatzea, ziklo/mailea edo ikasgaia kontuan izanda.

2.- Mintegietan, zentroaren ikasketa-proiektuan hartutako erabagietatik abiatuta, zehaztuko dira egitarau horreek izan behar dabezan formatuak eta programazioak egiteko erizpideak.

3.- Urteko egitarau orokorra egingo da, eta, aldi laburragoetarako programazioak be egingo dira, ziklo/sail bakotxeko taldeak erabagiten dauanaren arabera.

Maila bakotxean, ikasgaiei buruz egingo dira egitarauak, zeintzuk talderi emongo jaken kontuan izanda.

4.- Egitarauak egin eta gero, mintegiaren/sailaren, zuzendaritza taldearen eta irakasleen klaustroaren eskuetan geratuko dira, eta egokiak ikusten dabezan iradokizunak egin lekiez, zentroaren ikasketa proiektuagaz bat ez datozela egitarauok ikusten badabe. Eskola Kontseiluak berrikusi egin leikez heziketa proiektuagaz ados badagoz aztertzeke.

Irakaskuntzaren jarraipena eta koordinazioa

23) Egitarau didaktikoak burutzen diran edo ez ikusteko, jarraipena egingo dabe mintegiek eta irakaskuntzaren koordinazio bidea izango dira. Horretarako, sailaren mintegiburu arduradunak behar diran agiriak batuko dauz. Honako honeek agertu behar dira agiritan:

- Taldearen erizpide orokorrak.
- Kide bakotxaren urteko egitarauak.

- Erabagi eta konpromisoen aktak.
- Lan plangintzan ezagutu beharrekoak ikusi diran datuak eta egitarauetan praktikanjarri behar diran baloratzekoak.
- Taldeak egin eta proposatutako ikasgaiak.
- Bai taldean eta baita ikasleentzat zein irakasleentzat taldean ezarri diran frogak, galdeketak, etab.

3.- AGIRI AKADEMIKOAK

24) 1.- Ikasle bakoitxak bere espedientea izango dau eta bertan artxibatuko dira oinarrizko eta derrigorrezko agiriak. Honeen artean egongo dira:

- Ikaslearen fitxa pertsonala.
- Espediente akademikoa.
- Ebaluazino txostenak.
- Txostenak familiei.
- Azterketen emoitzen aktak.
- Ikasketak eta salbuespenak egokitzea, balegoz.

2.- Ikaslearen espediente pertsonala betetea eta bertan agertu beharreko agiriak sartzeari, ikaslearen tutoreari jagoko.

3.- Zentroko idazkariak gorde eta atxibatuko dauz agiriok. Bertan dagoan informazioa pertsonen intimidade-eskubideak babestuta egongo da, beraz, ezin izango dira erabili heziketa helburukoa ez dan beste ezertarako.

4.- Tutoreak, ikaslearen espediente pertsonalaz kanpo, eta tutoreak berak erabilteko bakarrik, beste datu interesgarri batzuk be erregistratuko dauz, irakasleek, ikasleak berak edo baTen familiak emonda. Asistentzia faltak eta egin dauzan beste falta batzuk be agertuko dira. Datu guzti honeekaz, taldeko ikasle bakoitxaren jarraipena egin ahal izango da.

5.- Ikasturte bakoitxa amaitzen danean, ebaluazinoaren emoitzak aktetan jasoko dauz langile administratiboak.

6.- Ikasle bat bere etapea amaitu barik, honetatik urtenda, beste zentro batera doanean, zentro barriko idazkariak ikasle borren Ebaluazino Txosten indibidualizatua eskatuko deutso zentro honi.

III- ESKOLA JARDUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

IRAKALEEI BURUZKO ARAUAK

IKASLEEI BURUZKO ARAUAK

GELAK ETA EKIPAMENDUAK ERABILTEKO ARAUAK

EBALUAZINOARI ETA SUSTAPENARI BURUZKO ARAUAK

IKASLEEN JARDUERA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK

ELKAR-BIZITZE ARAUAK

SEGURTASUNA, HIGIENA ETA OSASUNARI BURUZKO ARAUAK

Irakasleei buruzko arauak

25) 1.-Irakasleek jardun zuzena izango dabe zentroan, 28,3 ordukoa astean.

2.- Astean 20 ordutan emongo dabez klaseak eta 3 ordu eukiko dabez mintegiak, klaustroak eta tutoretzak egiteko, ganerako 5,3 orduak eurek egoki ikusten dabena egiteko eukiko dabez, pertsona bakarreko organoetan egindako lana izan ezik, horretarako badaukielako ordutegi barruan denbora bato

3.- Astean ordubete eukiko dabe tutoretza lanetarako eta irakaskuntza programa barruan jarri jakezan eta karguari jagokezan jarduerak burutzeko. Astean ordubete eukiko dabe irakasle taldeak batzarrak edo mintegiak egiteko. Taldeetako batza ho~eek burutzeko, antolatu egin beharko dira eskola-orduak, batzarretara klase-orduetatik libre joan ahal izateko. Hori ezinezkoa balitz, orokorretatik kanpoko goiz edo arratsalde baten izan beharko da, baina, kasu honetan, batzarrak hamabostero egin leikez eta ordu bi iraungo dabe.

Hilean goiz bat hartuko da klaustroak egiteko, 4 ordutan.

4.- Asteko ganerako orduak, zentroko jardunak edo eurek egokien ikusten dabena egiteko diranak, irakaskuntza jarduna prestatzeko, irakasleen lanbidea hobetzeko entzunaldiak antolatu eta irakaskuntza lanagaz zerikusia daukan gaiak burutzeko izango dira.

26) 1.- Irakasle guztiek beteko dabe arauz j arten jakezan irakaskuntza lan guztiak eta eginkizun bat be bai, derrigorrez, (tutoretza eginkizuna, zuzendaritzakoa edo parte hartzekoa, koordinazinokoa, etab.), Araudi honetan ezarritako organo eta lanen arabera.

Zuzendariak, pedagogia erizpideak kontuan izanda, eginkizunak nori atxiki eta gauza zalantzarriak erabagiko dauz zuzendaritza taldea entzun eta gero, irakasle taldeek/sailek, eta bere kasuan, irakasleek.

Irakasleen ordutegia irakasleen jardueren programa barruan sartuko da eta irakasleen klaustroak onartuko dau. Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoari bialduko jako, bisatu daian. Jendaurrean jarriko da ordutegia leku ikusgarrian eta eskola komunitadeko edozein kide heltzeko erraz dagoan tokian. Haren kopia bat emongo jako Eskola Kontseiluari.

2.- Zuzendaritza taldeak proposatuta, zuzendaritza, koordinazio eta ordezkaritza kargu bakotxa nori beteko dauan erabagiko da, Araudi honetan edo urteko plangintzan ezarritako ordutegi-murrizketakaz.

Irakasleen eta ikasleen eskola-orduak zenbatuta, libre dagoan denborea kontuan izanda, zuzendaritza taldeak, irakasle taldeetako arduradunak entzunda, eginkizunak atxikitzeke erizpideakaz egingo dau proposamena. Proposamen horretan azalduko dira lehentasunak, afea edo ikasgai berezi batzuk bitan banatzeari, hezkuntza-errefortzuari eta irakasleen jarduera-programatik eratorritako plangintzen beharizaneiei eta prestakuntza planari eta abarri buruz. Eginkizun bakotxa aurrera eroango dauan pertsona edo irakasle taldea nor danjarriki eta zenbat denbora izango dauan.

Era berean, ikasturtean, eskola-orduen barruan ikasleren batek baja hartzen dabadau eta itxaronaldian dagoan ikasleren bategaz hutsunea beteten ez bada, irakaslea zentroan egongo da denbora libre horretan, zuzendaritza taldeak gainbegiratutako beste lanen bat burutzen.

3.- Proposamen honetatik aurrera, ikasketa buruak prozedura jarraiturik iraskaskuntza lanak atxikiko dauz:

Gai bakotxeko sailak irakaskuntza-eginkizunak banatzeko proposamena egingo dau bere kideen artean, eta zuzendaritza taldeak onartuko dau. Banaketa honetan, antolakuntza eta pedagogia erizpide guztiak izango dira kontuan, talde-gela bakotxean irakasleen kopurua handiegia izan ez daiten. Irakasle bakotzak ahalik eta talderik gitxienei klasea emotea izango da helburua.

4.- Lanaldi txikia daukan irakasleak eskola-ordutegiaren % 50etik beherako proportzioan klaseak emonez astero, arau honek bete beharko dauz:

Tutoretza eta koordinazio lanak beteteko, hilean ordu bi dagoala zentroan zenbatuko jako; hau da, tutoretzako ordu erdi hilean eta ordu terdi hilean koordinazio lanetarako (klaustroak eta mintegiak).

Ikasleei buruzko arauak

27) 1.- Goizez eta arratsaldean bananduta antolatuko da ikasleen eskola-eguna. Ikaslea ezin izango da egon zentroan hiru ordu baino gehiago klasean jarraian, atsedena izan behar du.

2.- Ikasgai bakotxaren denborea ikasturtean zehar bananduko da, astean ordubeteko saioetan. Egun berean ezin izango da saio birik antolatu. (Ikus. 1. Eranskina).

Aurreko arauaren salbuespenak izango dira:

14 urtetik gorako ikasleak, 3., 4., edo 5. urtea egiten badabilz, kurtso bat urte bitan ikasteko aukerea izango dabe, baina, gaiak holan aukeratuta:

Hizkuntza musikala / multzo instrumentala eta abesbatza, urte baten eta musika-tresnea, bestean.

Dependentziak eta ekipamenduak erabilteko arauak

28) Zentroaren dependentzien eta ekipamenduen erabilera nagusia irakaskuntza lana betetea izango da.

2.- Talde bakotzak gela bat izango dau, bere ohiko eskola-lanak burutzeko, batzuk dependentzia espezializatueta emon beharko diran arren.

Jarduera berezietarako gune komunak, ahal danaren arabera atxikiko dira, talde guztien hezkuntza beharizan guztiak betez. Kurtso bakotxaren hezkuntza jardueren programan erizpideak finkatuko dira eta gune honeen ordutegia bananduko da.

3.- Baliabide zerbitzuaren esku egongo dira baliabide didaktikoak. Honek zaindu egingo dauz, antolatu eta banandu. Baliabide barriak erostea be, zerbitzu honen kontura egongo da, atxikitzen jakon aurrekontuaren arabera eta zuzendaritza taldeak ezarrita daukazan lehentasunakaz, irakasle taldeak entzun eta gero.

Baliabide didaktikoak erabilteko, irakasle bakotzak zerbitzuko arduradunari eskatuko deutsoz, egun bat lehenago, gitxienez, behar dauzan baliabide eta ekipamenduak.

29) 1.- Zentroko dependentziak eta tresnak erabili leikez ikasteko ahalbiderik ez daukan ikasleak. Zentroaren edo bere alkarrekin antolatutako jardueren garapen normalari kalte egin edo eragozpenik egiten badeutse ez baimenik emongo. Eskola Kontseiluak jarriko dauz zentroaren lokalak erabilteko lehentasunak eta erizpide nagusiak, beti be, euskal eskola publikoaren aniztasun abiaburua kontuan izanda.

2.- Legalki eraturako erakunde zein alkarrekin edo zentroaren dependentziaren bat erabili gura dauan partikularrak, eskaria aurkeztu beharko deutse zentroko

zuzendaritzari, bertan azaldurik zein izango dan jardueria, noiz egingo dan, zenbat iraungo dauan eta zeintzuk lokalak beharko dabezan. Burutuko diran jardueren eta gerta leikezan kalteen erantzukizuna be hartu beharko dau eskatzaileak. Ikastaldia edo urtea amaitzen danean, Zuzendaritzeakjarduera horri buruzko txostena egitea eskatuko dau.

3.- Zentroaren zuzendaritzeak, indarreko araudiaren arabera eta Eskola Kontseiluko erizpideei jarraituta, zentroaren gelak erabilteko baimena emongo dau.

Batez be hauteskunde sasoietan, zentroaren gelak ekintza politikoak burutzeko erabiltea, jagokozan agintariak agindutako arauetara makurtuko da.

Ebaluazioari eta sustapenari buruzko arauak

30) Hiru zatitan bananduko da ikasturtea. Irakasle bakotzak programazio orokor bat egingo dau eta zati bakotxerako beste bat, gaiaren ziklo/saileko taldeak jarritako erizpide zehatzakaz, zentroaren ikasketa-egitasmoak ezarritakoa betez.

Ikasturte hasieran, irakasleak azalduko deusie bai ikasleei eta bai euren familiei irakaskuntzearen helburuak zeintzuk diran eta ebaluatzeko erabiliko diran erizpideak.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak dinoana kontuan izanda, derrigorrezkoa da jendea informazio honen jakinean ipintea. Zentro bakotzak erabagi beharko dau hori zelan egin.

31) 1.- Ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa indibidualizatua eta eten bakoa izango da. Taldeko irakasleek egingo dabe.

Emoten dauan ikasgaiaren ebaluazioaren erantzulea izango da irakasle bakotxa.

2.- Ikasturtea zatitzen dan aldi bakotxaren amaieran egingo da ikasleek ikasitakoaren eta irakaskuntza praktikearen ebaluazioa. Irakaskuntza programa barruan, aldi honeek eta ebaluazioak egiteko datak finkatuko dira, baita erabiliko diran tresnak, ikasketa- proiektuak ezarritakoaren arabera.

3.- Ikasketa buruak irakasleen ebaluazio batzarretarako deia egingo dau eta derrigorrez joan beharko dabe:

Ikasle bakotxari buruzko txostena egingo dau irakasle bakotzak, honakoa agertuz:

- Ikasgaietako kalifikazioak.

- Bere jarrera eta eskola-etekinari buruz dakan eritxia.

- Beharrezkoak diranean, aholkularitzea eta hezkuntza-errefortzua proposatzea.

4.- Irakasleak ebaluazinoari buruzko idatzizko informazioa emongo deusie ikasleei eta euren gurasoel.

5.- Hurrengo ikasturtera joango dira ikasleak ikasgai bakoitzean ebaluazino positiboa lortu ezkeru.

6.- Ikasturte bakoitza amaitzen danean, aktan agertuko dira ikasleek ikasgaietan izandako ebaluazinoak.

7.- Ebaluazino batzarra amaitu eta gero, irakasle taldeak eta gaietako mintegiek amaitu dan aldia eta ikasleek lortutako emoitzak aztertuko dabez.

Taldeen egoera aztertuko dabe irakasleek, batez be, ebaluazino negatibodun ikaslerik handiena daukien taldeena, behar izango liratekeen neurriak hartu ahal izateko.

Mintegietan, talde eta mailetakoko ebaluazinoak ikusita, egitarauak aztertuko dira. Akats handiak ikusten diranean, beharrezkoak liratekeen neurriak hartuko dira. Irakasleen proposamenak be aztertuko dira, euren jagokenean.

Irakasleen klaustroak ebaluazinoari buruzko emoitzak aztertuko dauz, zeintzuk izan diran arazorik larrienak eta ze neurri hartu dan.

8.- Zuzendaritza taldeak, bere ekimenez edo irakasle talderen batek proposatuta, hobetzeko proposamenak aurkeztu leikez. Ikasturte amaieran, eskolako jardueri, emoitza akademikoei eta irakaskuntza jardueren egitaraua bete dan edo ez gaiari buruzko txostena egingo dau.

9.- Ebaluazinoaren emoitzen barri emongo deutso ikasketa buruak Eskola Kontseiluari, baita egin diran egitarau orokorrenak eta hobetzeko egin diran proposamenena be.

32) Ikasleek, gurasoek eta tutoreek, balorazinoan erabili diran erizpideak ezagutzeko eskubidea daukie eta ikasturte amaieran izan daben kalifikazinoareklamatzekoa be bai.

Lehenengoz, ikasgaia emoten dauan irakasleari egingo jako errekurtsua. Irakasleari buruz daukan dokumentazino (froga idatziak, erregistratu dauzan oharrak, egindako lanen laginak eta oharrak, klasean izandako jarrerak, ...) eta ebaluazino batzarreko aktak aurkeztuko dauz honek, erreklamazinoareklamatzeko dabenek ikusi ahal izateko. Irakaslearen eta haren gurasoen alegazinoak entzun eta gero, erabagiko dau kalifikazinoareklamatzeko bere horretan mantentzea edo aldatzea.

Hartutako erabagiagaz ados ez badagoz, zentroko zuzendaritzeari egingo deutsoe errekurtsua, eta, honek, ikasketa buruaren bidez eta gai horretako sailaren

arduradunaren bitartez, dokumentazioa aztertuko dau, alderdi biek egingo dabean alegazioak entzungo dauz eta erabagia hartuko dau, edota informazio iturri barriak bilatuko dauz (ahozko edo idatziko froga barriak egitea, ikaslearen koademoak ikustea, etab.) erabagia hartu orduko.

Azkenean, Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoari egin leikio errekurtsua eta honek hartuko dau behin betiko erabagia. Zentroak, Ikuskaritzeak eskatuta, daukan dokumentazio guztia emongo deitso eta egoki ikusten dauzan alegazioak be bai.

Lehenen hartutako erabagia aldatzea gertatu ezkeru, edozein instantzitan, aktan agertarazoko da eta ikaslearen espediente akademikoan be bai.

Ikasleen jarduera bereziei buruzko arauak

33) Urteko egitarau barrurako onartu diran jarduera osagarriak, ikasketen garapenaosatzen dabenezkeru, derrigorrez egin beharrekoak izango dira. J arduera horreetan parte hartetik salbuetsi leike gaixotasunik izanezkeru, medikuak kontrakoa esaten badau edo kontzientzia arazorik badauka. Gurasoek edo ikasleak, adinez nagusia bada, salbuesteko eskaria aurkeztuko deitso irakasleari euren eskaria arrazoituz.

Honeetariko jardueraren bat burutzeak ordaindu ezin dauan gastua bada kartso zentroari, ikasleei diru-kopuru bat eskatu leikie horretarako bakarrik. Ikasturte bakotxa hasten danean, Eskola Kontseiluak erabagiko dau zein dan ekintza horreetarako ikasleei eskatu leikien diru-kopururik handiena eta ze diru-laguntza sistema erabiliko dan ekintzak ordaindu ezin dabenezkat edo ordaindu gura ez dabenezkat.

34) Eskolaz kanpoko ekintzetan (eskola-orduetatik kanpo) parte hartzea borondatezkoa izango da. Ikasle guztiek parte hartu ahal izango dabe. Ez da ezelako birle zuzen edo ez zuzenik jarriko eskolaz kanpoko parte-hartzeetan inor baztertzeke.

Kuotaren bat ipinten danean, egin gura diran ekintzetako gastuak ordaintzekeo bakarrik izango da, eta beti egongo dira, diru-laguntza edo salbueste sistemak ordaindu ezin dabenezkat.

35) 1.- Gelan egindako eskola-lanak, euren ikasketa pertsonalakaz tinkotzera behartuta dagoz ikasleak. Lan honetan laguntzekeo, irakasleek aginduko ahal izango deitsoez etxerako lanak, baina, beti be, gelan bertan emondakoaren arabera.

2.- Oporraldietan, irakasleak beharrezkoa ikusten badau, ikasleak garatzeko lan osagarriak antolatu leikez.

3.- Arau honeek beteten dirala ikusiko dau bermatuko dau irakasleak, eta, ikasleren baten uste badau euren osotasunean edo zeozertan ez dirala beteten, kexa hori azaldu egin leikio bere irakasleari.

Alkar-bizite arauak

a) Bermeoko Jose Antonio Egia Udal Kontserbatorioak eten bako lanaldia dauka, ikasleak herri ezbardinetatik datozelako eta horrela zentroa hobeto aprobetxatzeko.

b) Klaseetara eta jarduera osagarrietara joatea derrigorrezkoa izango da. Ezin badabe joan, ikasleak klasera itzultzen diranean euren tutoreari emon beharko deusie idatzizko justifikazinoa. Honek egiaztatu egingo dau eta artxibatu. Huts egite horreek justifiketako agiria, huts egitea egin danetik 15 egunen barman aurkeztu beharko da.

c) Justifiketan ez dan ez etorte hori, ikaslearen gurasoei eta euren tutore legalei jakinarazoko jake.

d) Ikasleek ezin izango dabe zentrotik urten eskola-orduetan, horretarako emondako baimen barik.

e) Derrigorrez bete behar diran arauak dira:

- 1.- Ez da erre behar, horretarako jarritako lekuetan izan ezik.
- 2.- Pasilloetan ahal danik ixiltasunik handiena gorde behar da.
- 3.- Zentroko instalazinoak, musika-tresnak eta materiala kontu guztiagaz erabiliko da.
- 4.- Irakurteko eta ikasteko bakarrik erabiliko da liburutegia.
- 5.- Irakaslea etorri arte gelan itxaro behar da.
- 6.- Klaseak aldatukeran edo gelatik urtekeran, ez da egin behar zaratarik.
- 7.- Gelak eta zentroko beste dependentziak garbi euki behar dira.

f) Ikasleen disziplina faltak dirala eta, hiru falta moeta aurreikusten dira: arinak, larriak eta oso larriak. Ikasleek zigorra jaso ahal izango dabe, urriaren 28ko 1543/1988 Errege Dekretuak (abenduaren 26ko EAO) falta modura sailkatuta daukazan jarrerakai tik.

g) Falta arinak izango dira:

1.- Klasera puntual ez heltzea.

2.- Disziplina hutsegiteak.

3.- Klasetik urtetea arrazoi barik eta irakaslearen baimen barik.

4.- Klasera ez joatea, justifikauta ez badago.

5.- Zentroko material pedagogikoetan, ardilla bakokeriagaitik eragiten diran hausketa txikiak.

6.- Klaseko ikaskideak iraintzea edo burlak egitea.

7.- Orain arte esandakoetan agertu ez arren, jagokon organoak hutsegite arintzat hartzen dauzanak.

h) Hutsegite larriak izango dira:

1.- Hutsegite arinak behin eta berrero eta sistematikoki egitea.

2.- Ikasleak burutu dauzan indarkeria ekintzak.

3.-Irakaslea iraintzea.

4.- Disziplinatik kanpoko ekintza larriak.

5.- Zentroko materiala, musika-tresnak, instalazioak eta altzariak gurata haustea.

6.- Produktu toxikoak zentroan banandu, saldu, edo sustatzea, baita askatasun individualari kalte egiten deutson ekintzak burutu edo jarrerak izatea.

7.- Orain arte esandakoetan agertu ez arren, jagokon organoak hutsegite larritzat hartzen dauzanak.

i) Hutsegite oso larriak izango dira:

1.- Ikasturte akademiko baten barman hiru hutsegite larri egitea.

2.- Larritzat sailkatuak burutzea kolektibidade zirkunstantziak emonda edo gurata publizidadea egin ezkerro.

j) Aurreko ataletan azaldu diran hutsegiteak egin ezker, urriaren 28ko 1543/1988 Errege Dekretuan azaldutako zigorrak jarriko dira, Araudiaren 2. Eranskinean agertzen dan prozeduraren eskemaz.

Segurtasunari, higienari eta osasunari buruzko arauak

36) 1.- Segurtasun eta higiene batzordeak zentroaren larrialdi plana egingo dau, edozein ezbehar aurreikusi ahal izateko, horretarako, behar dan aholkularitza eskatuko dau.

2.- Botikin bat eukiko dau zentroak behar dan moduan homitua eta pertsona helduak bertaratu ahal izateko lekuan.

3.- Tabakorik eta edari alkoholdunik zentroan banatzea galazota daga. Ikasleek ezin izango dabe erre zentroan. Leku batzuk egongo dira adin nagusiko erretzaileentzat, eta, handik kanpora erretea galazota egongo da.

IV. ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDI HAU ALDATZEKO PROZEDUREA

37) 1.- Araudi hau aldatzeko ekimena, Eskola Kontseiluko kideen, Irakasleen Klaustrukoen edo Zuzendaritza taldeko kideen % 20arenatik hasi leike. Batzorde irankorrean aurkeztu behar dira ekimen honeek, iragarteko eta Eskola Kontseiluaren batzar deialdia egin orduko eztabaidatzeko. Batzar horretako deialdiaren gai zerrendan sartuko da aztertu ahal izateko eta gehiengo osoak erabagia hartzeko Araudia aldatuko bada edo ez.

2.- Proposatutako aldakuntzak onartuko balira behin behingoz, Urteko Memorian ebaluatuko litzateke horreen benetako funtzionamendua, Eskola Kontseiluak erabagi daian ikasturtea amaitzen danean, behin betiko onartuko badira edo behin betiko indar barik geratuko diran.

3.- Eskola komunitadeko edozein kidek eskubidea eukiko dau, Araudi honen gainetik dagoan legezko zein administrazinoko araudirik aurkeztekoa batzorde iraunkorrean, kontrakorik badino, edota hemen esandakoa osotzen badau edo ezelako eraginik badauka honen edukinean, eta Eskola Kontseiluak kontuan izan beharrekoa dala uste badau. Edozelan be, Zuzendaritza taldeak kontuan hartu beharra dauka. Batzorde iraunkorrak baloratu egin beharko dau haren komenigarritasuna eta Eskola Kontseiluak eztabaidatuko dau proposamena.

1. ERANSKINA

PLANGINTZEA MAILAKA
ASTEAN EGINDAKO DENBOREA

1.- 1. MAILEA EDO HARRERAKOA (4tik 7 urtera bitartekoa)

Ikasleen kopuruak izten badau, sei ikasleko lau talde egingo dira gitxienez.

a) 4 - 5 urtekoak:

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, ordu erdikoak.
- Musika-tresna barik.

b) 6-7 urtekoak:

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, hiru ordu laurenekoak.
- Musika-tresnea aukeran.

2.- 2. MAILEA EDO HASIKERAKOA (Ez dago adin mugarik 8 urtetik aurrera)

a) Prestakuntzako kurtsoa:

Musika ezaguera barik matrikuletan diran guztiak egin behar dabe kurtso hall, bai hizkuntza musikal mailan zein musika-tresna mailan be.

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, hiru ordu laurenekoak.
- Musika-tresnea, derrigorrezkoa: ordu erdiko klasea astean.
- Abesbatza: aukerakoa.

Musika ezaguerarik izan barik zentroan matrikuletan diran 18 urtetik gorako ikasleek, derrigorrez egin beharko dabe Musika Ezagupenerako Oinarrizko Kurtsoa:

- Hizkuntza musikala: ordubete astean.
- Musika-tresnea: aukeran, ordu erdi astean.

b) 1 eta 2. mailak:

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, hiru ordu laurenekoak.
- Musika tresnea: derrigorrezkoa, ordu erdi astean.

- Abesbatza: derrigorrezkoa, ordubete astean.
- Instrumentu taldea: aukerakoa, ordubete astean.

c) 3. eta 4. mailak:

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, hiru ordu laurenekoak.
- Musika-tresnea: derrigorrezkoa, ordu erdi astean.
- Abesbatza: derrigorrezkoa, ordubete astean.
- Instrumentu taldea: derrigorrezkoa, ordubete astean.

d) 5. mailea:

Tinkotze maila edo 3. mailara igaroteko prestatzen dauan kurtso modura hartzen da:

- Hizkuntza musikala: klase bi astean, hiru ordu laurenekoak.
- Musika-tresnea: derrigorrezkoa, astean ordubetekoa.
- Abesbatza: derrigorrezkoa, ordubete astean.
- Instrumentu taldea: derrigorrezkoa, ordubete astean.

2. ERANSKINA

PROZEDURA BERMEAK

DISZIPLINA ESPEDIENTE BAT BURUTZEKO PROZEDUREA

<u>Urratsak</u>	<u>Nork eskatuta</u>	<u>Zenbat egunetan gehienez</u>
1.- Espedientea zabaltzea.	Zuzendaria edo Eskola Kontseiluak	10 egunetan gehienez gertakizuna jazo eta gero
2.- Instruktoea izendatzea	Eskola Kontseiluak	
3.- Espedientea zabaldu dala edo instruktorea izendatu dala jakinarazo ikasleari edo haren gurasoei	Eskola Kontseiluak	7 egunetan instruktorea izendatzen danetik hasita
4.- Espedientea instruitzea	Instruktoeak	
5.- Entzunaldia gurasoei eta ikasleari	Instruktoeak	

6.- Leporutzen jakon hutsegitea jakinarazotea gurasoei edo ikasleari eta ze zigor proposatzen da.	Instruktoreak	
7.- Espedientea erabagitea	Eskola Kontseiluak(erabagia hartzea edo gaia artxibatzea)	23 egunetan, gurasoei hutsegitea jakinarazo ostean
8.- Gurasoei eta ikasleei jakinarazotea	Eskola Kontseiluak	
9.- Erreklamazinoa egiteko aukerea	Aitak, amak edo tutoreak, edo ikasleak berak	15 egunetan, erabagiaren jakinarazpena hartzen danetik
10.- Erreklamazinoa erabagitea	Probintzia Zuzendaritzeak	15 egunetan